



Eskola Kirola – 2017-2018rako lehiaketa araudia

WATERPOLOA

1. IGERILEKUEN, ATEEN ETA BALOIEN NEURRIAK

1.1. Ontziaren neurriak

Kortxo ilara batek erdibitzen du igerilekua, eta 12 m x 12,5 m-ko bi jokalekutan jokatzen da, zabaletara.

Oinarrizko seinaleak:

- **Erdiko marra** hondoko bi marretatik 6 metrora dago, eta ontziaren erdialdea adierazten du.
- **Hondoko marrak** erdiko marraren paraleloak dira eta erdiko marratik 6 metrora daude; zati bakoitzaren hasieran hondoko marratik abiatzen dira jokalariak baloiaren bila, zeina igerilekuaren erdialdera jaurtitzen baita bi taldeak haren jabetza lortzeko lehiatu daitezten.
- Alboetako marrek ontziaren alboak mugatzen dituzte.
- Penalti puntua ateko hondoko marratik 4 metrora dago.

2. TALDEEN OSAERA. IGERILARIAK TXANDAKATZEA ETA ALDATZEA

2.1. Taldeen osaera

Talde mistoak egin behar dira eta kideetako bi, gutxienez, mutilak edo neskak izan behar dira. Talde bakoitzak sei jokalaria izango ditu, eta bietako batek atezaina izan behar du.

2.2. Jokalari aldaketak

Jokalari aldaketak baimenduta daude eta nahi erara egin daitezke.

3. PARTIDEN IRAUPENA ETA TANTOAK

3.1. Partiden iraupena

Partida bakoitzak 5 minutuko 6 zati ditu, eta minutu bateko atsedena dago zati batetik bestera. Zati bakoitza amaitzean, jokalekuz aldatzen dira taldeak.

4. MATERIALA ETA JANZKERA

4.1. Ateen neurriak

Waterpoloko ate txikien antzekoak izan behar dira ateak, gutxi gorabehera 1,80 m x 0,9 m-ko neurrikoak, eta zutointzat taulak jartzea edo klub bakoitzak egoki jotzen duena onartuko da.



Arabako Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Álava

www.araba.eus

4.2. Baloien neurriak

Baloiek 18 eta 20 cm arteko diametroa izan behar dute, eta, gehienez ere, 170 g-ko pisua. Txikiak eta itsaskorrak izan behar dira.

4.3. Jantzkerak

Taldeko kide guztiek kolore bereko txanoa izan behar dute.

5. ARAU TEKNIKOAK

5.1. Partidaren hasiera

Bi taldeetako jokalaria hondoko marraren atzean jarriko dira, eta arbitroak zatia hasi dela adierazteko txilibitua joko du, baloia igerilekuaren erdialdera jaurtitzearekin batera. Seinale hori entzuten dutenean, talde bietako jokalaria baloiaren bila abiatuko dira, baloiaren jabetza lortzeko.

5.2. Azken emaitza

Irabazitako zati bakoitzagatik tanto bat lortzen da eta, beraz, partidaren amaierako emaitza gehienez ere 6-0 izango da.

Zatiren batean berdinketa gertatuz gero, gol kopurua hartuko da kontuan.

5.3. Faltak

- Baloia urperatzea.
- Heltzea, jotzea edo jokalaria bati libreki mugitzea eragozteak, ura botata edo ito-pasarak edo agudillak eginez.
- Baloia ukabilez jotzea (atezainak egin dezake).
- Baloia bi eskuekin heltzea (atezainak egin dezake).
- Atea mugitzea.

Aurkariaren atetik hurbil egindako falta larri oro, baldin gol aukera argia izan bada, penalti bidez zigortuko da.

Ontziaren beste edozein lekutan falta eginez gero, baloiaren jabetza talde aurkariari emango zaio, hark berriz jokoan jar dezan.

Jokalariren bat kanporatuz gero, igerilekutik irten, kanpaia jo eta igerilekura itzuli beharko du.

6. DIZIPLINA ARAUTEGIA

Uztailaren 23ko 391/2013 Dekretua, eskola kiroleko lehiaketan diziplina araubideari buruzkoa, aplikatuko da.

Arautegi honek xedatzen ez duen guztia uztailaren 1eko 125/2008 Dekretuak, eskola kirolarenak, arautuko du, eta dekretu horrek xedatzen ez duena, berriz, Arabako Igeriketa Elkartearen lehiaketa arautegiak.